



ETAPA	ERANSKINA
2	2



## II. ERANSKINA: Kasu-azterketa



## 1. Klima aldaketa artikoan eta Sami kulturarentzat mehatxua

Ikusi bideo hau: <https://www.youtube.com/watch?v=HUCWAXnw8zQ>  
(Ingeleseaz)

Alternatiba gaztelaniaz: <https://www.youtube.com/watch?v=g46fh5kC2Ws>  
(1´20´´ arte)

Artikoa munduko gainerako lurraldeak baino bi aldiz azkarrago berotzen ari da. Horrek arriskuan jartzen du haren ekosistema bakarra eta, harekin batera, milaka urtez Artikoan bizi izan diren "sami" herritarren biziraupena; European aitortutako herri indigena bakarra da. Iragartzen eta eramaten gero eta zailagoa den klima batek arriskuan jartzen ditu samitarren bizibideak eta herri indigena diren aldetik dituzten eskubideak. Sami herriak mezu argia du erabakiak hartzen dituzten arduradunentzat, klima-aldaketaren lehenengo borroka-lerroetatik: «Orain da ekiteko unea».

Sami herria, European aitortutako herri indigena bakarra, Sapmi lurraldean hedatzen da, Suedia, Norvegia, Finlandia eta Errusiako iparraldeko lurretan. Eskualde hori habitat garrantzitsua da Artikoko eta Artiko-ondoko faunarentzat; hartz polarrek, elur-oreinek, itsas txakurrek, mortsek, baleek eta hegaztiek eboluzionatu egin dute, behe-lurretako, mendietako eta basoetako tundrako klima gogorrean bizirik irauteko. Sapmi lurraldean 80.000-100.000ren bat samitar bizi direla kalkulatu da, horietatik 20.000-40.000ren bat Suedian, 50.000-65.000ren bat Norvegian, 8.000 inguru Finlandian eta 2.000 inguru Errusian. Herri desberdin gisa identifikatzen dira, gaur egun beren luraren beste aldean dauden muga nazionalak edozein direla ere. Naturarekin harmonian bizi izan dira haien berri izan denetik, beren lurren eta baliabide naturalen erabilera jasangarriari esker.

Samitarren bizimodua asko aldatu den arren, elur-oreinen hazkuntza garrantzitsua da oraindik ere haien identitaterako eta eskubideetarako. Gainera, elur-oreinei «entzuteko» modu paregabea dute: sintonia handian daude elur-oreinen portaera desberdinekin, eta haiek adierazten dituzten ingurumen-aldaketei erreparatzen diete. Elur-oreinen hazkuntzan sortzen



den harreman berezia pertsonen, ingurumenaren eta basa-bizitzaren arteko benetako lotura da, milaka urtez samitarrekin iraun duena. Orain, klima-aldaketaren mehatxupean dago.

Herri indigenak izan ohi dira klima-aldaketaren ondorioak nabaritzen lehenak, beren bizibideak baliabide naturalen mende egoten baitira. Samitarren bizimodua, kultura eta identitatea elur-oreinen hazkuntzari guztiz atxikiak dira, eta Sapmi lurraldean herri indigena gisa dituzten eskubideen oinarria dira. Samitarrentzat ezinbestekoa da elur-oreinek bizirik irautea klima aldakorrean.

Klima-aldaketaren ondorioz elur-oreinen populazioa murrizteak eta samitarren bizi-baliabideek jasaten duten mehatxuak lurra baliatzeko eskubide garrantzitsuak galtzea ekar dezakete. Elur-oreinen hazkuntzari buruzko Suediako Legeak (1971: 437) ezartzen duenaren arabera, samitar guztiak herri indigena gisa oinarritzko eskubideak dituzte, baina eskubide horiek guztiak erabiltzeko —lurra baliatzeko eskubideak barne—, artzain-komunitate bateko kide izan behar dute, eta elur-oreinen artzaintzan jardun behar dute. «Praktikan, Suediako samitarren eskubideak oso estu lotuta daude elur-oreinen artzaintzarekin. Samitarren identitatea eta eskubideak estu lotuta egindako antolakuntza hori XIX. mendearen amaieratik ezarritako politika kolonialaren zuzeneko ondorioa. Garai hartan, estatu-politika bikoitza zen: asimilatzea (artzaintzan ari ez ziren samitarrei beren eskubideak eta hizkuntza ukatu zitzaizkien) eta banantzea (artzaintzan ari ziren samitarrek Estatuak bizimodu tradizionaltzat jotzen zuena mantendu behar zuten)»; hala kontatzen du Annette Löf Umeako Unibertsitateko Sami Ikerketa Zentroko ikertzaileak. Sami eskubideen arloan Suediaren, Norvegiaren, Finlandiaren eta Errusiaren arteko lankidetzak falta nabaria dago, eta horrek Sapmi lurralde osorako legeria falta dakar. Sapmi osoko samitarren eskubideak oso-osorik aztertu behar dituzte Sapmiko lurraldea kontrolatzen duten lau gobernuak, samitarren ordezkariarekin kontsultatuz, besteak beste, Sami Kontseiluarekin eta parlamentuekin.

Sami populazioaren osasun mentaleko arazoak gero eta ugariagoak dira, eta klima-aldaketak beren bizimodu tradizionalerako eragiten duen mehatxua



haien estresaren kausatzat hartzen da. Suediako samitar helduen erdiek antsietatea eta depresioa pairatzen dituzte, eta artzain indigenetatik, hirutik batek bere buruaz beste egitea pentsatu du. Sami herriak Suedian duen suizidio-tasa estatuko batez bestekoa baino lau aldiz handiagoa ere izatera iristen da.

Samiak oso kontziente dira klima-aldaketaz eta lurra erabiltzeko lehia gero eta handiagoaz. Maxid aMärak artista eta ekintzailea da, eta bere herriaren eskubideen alde borrokatzen da abestien, bideoen eta elkarrizketen bidez. Hauxe dio: «Sami ekintzailea naiz, ez dudalako beste aukerarik. Erantzukizun handia sentitzen dut [nire] ahotsa erabiltzeko nire herriaren alde eta gure borrokaren gai garrantzitsuen alde... Samitarren berririk, haien kontuen edo arazo politikoaren berririk inoiz entzun ez duten pertsonekin topo egiten dudanean, haserretu egiten zaizkit. Jende asko da ona, baina arazoaz jabetu gabe jarraitzen duten bitartean, askoz zailagoa da borrokan jarraitzea. Klima-aldaketa benetan serio hartzen hasten ez bagara, etorkizuna ez da ederra izango inorentzat. Seguru asko, gu izango gara klima-aldaketaren ondorioak pairatzen lehenak. Baina itxaropena ikusten dut, nire belaunaldia da botere-postuetara irits daitekeen lehena, eta gure izenean hitz egin dezake». Sami Kontseiluaren eta Legebiltzarraren bidez, sami ekintzaileak malgutasuna eskatzen ari dira Sapmi lurraldearen erabileran, haien abere-taldeak bizirik mantentzeko. Egokitze-neurri horiek beharrezkoak dira herri indigenek klima-aldaketari aurre egiteko aukera izan dezaten, baina beharrezkoa da, halaber, nazioarteko ikuspegia izatea gai nagusian: Artikoko sami kultura eta ekosistema bakarrak babesteko, nazioarteko ekintza premiazkoa da, klima-aldaketa antropogenikoaren arazoari heldu ahal izateko.

«Arctic climate change and the threat to Sami culture» lanaren laburpena eta egokitzapena. Iturria: EnvironmentalJusticeFoundation:

<https://ejfoundation.org/resources/downloads/EJF-Sami-briefing-2019-final-1.pdf>

## 2

### Lurraren galera Bangladeshen

Ikusi bideo hau: <https://www.youtube.com/watch?v=ieAmy-8Qqvk> (ingelesez)


Gaztelerazko alternatiba bat:

<https://www.youtube.com/watch?v=6w2BAAlPRds> (2'08"– 5'50")

#### Ganges-Brahmaputra-Meghna ibaien delta, Bangladesh eta India: megadelta transnazonala

Ganges-Brahmaputra-Meghna (GBM) delta, Bengalako badiaren iparraldean, Indiak eta Bangladeshek kudeatzen dute. Bizimodua aurrera ateratzeko aukerak dituen eskualdea da, biztanleria-dentsitate handiaren ondorioz, baina hainbat arazo biofisiko eta sozioekonomiko ere badira (uholdeak, higadura, zikloiak, ura eta lurra gazitzea, urpean geratzea, etab.), areagotzen ari direnak, klima-aldaketarekin eta eboluzio antropogenikoarekin batera.

Eskualde horretako populazioa, batez ere, nekazaritza-sektorearen mende dago; kostaldean bizi den populazioa arrozaren laborantza tradizionaletik bizi da, eta biziraupen-jardueretatik, esaterako, ibai eta itsasoko arrantzatik, eta mangladiekin lotutako jardueretatik, hala nola ezti-bilketatik. Ur gezaren uholdeak arruntak dira montzoiaren sasoiaren deltan; onura ekartzen dute, hala nola lurzorua emankortasuna handitzea, akuiferoak betetzea, ekosistema lehengoritzea eta nekazaritzako ekoizpena handitzea. Deltak zerbitzu ekosistemikoen aniztasuna ere babesten du, eta haiek tokiko biztanleria handia erakartzen eta babesten dute. Eremu giltzarri bat Sundarbans da, munduko mangladi-basorik handiena, 10.000 km<sup>2</sup>-ko azalera duena, Bangladeshen (% 60) eta Indiaren (% 40) artean partekatua. Inguru horretako biodibertsitate paregabeak bizirauteko aukera ugari eskaintzen dizkie haren inguruan bizi diren pertsonen (Gopal eta Chauhan [2006](#)).




Ganges-Brahmaputra-Meghna deltaren kostaldeko eremuan Indian nahiz Bangladeshen kokatutako barruti administratiboak daude. Itsasertzeko populazioa arrisku klimatikoaren eraginpean dago, esaterako: mareak eta ibaiek eragindako uholdeak, zikloi tropikalak eta haiek eragindako ekaitz-mareak, ibaiertzen higadura, itsas intrusioa, ibai-emariek sasoi lehorrean izaten duten maila apalen ondorioz eta ibaian gora egiten diren ur-desbideratzeen ondorioz, lurpeko uren gazitasun-maila handiak eta sakonera txikiko akuiferoen artseniko-kutsadurak. Aurreikuspenen arabera, klima-aldaketaren eta lurraren erabileraren inpaktuek tentsio horietako asko gogortu egingo dituzte (Dastagir 2015).

Ingurumen-tentsio horiek dagoeneko kezkarriak diren desplazamenduak eta migrazioak handitzen ari direla uste da. Herrialde hark egokitze-ekimen planifikatu eta autonomo asko ezagutu ditu, behartutako migrazioa eta desplazamenduak gutxitzeko asmoz, baina, hala are, maiz gertatzen dira pertsonak ezinbestean mugitzera behartzen dituzten egoerak (Mortreux et al.2018). Beraz, plangintza eraginkorra izan dadin, garrantzitsua da politiken arduradunek ulertzea egokitze-aukeren eraginkortasuna, pertsonak migratzera eramaten dituzten egoerak, eta migrazioa aukera gisa ikusten ote duten pertsona horiek, eskura dituzten egokitze-aukeren testuinguruan.

Iturria: «Ganges-Brahmaputra-Meghna Delta, Bangladesh and India: A Transnational Mega-Delta», Springer (arg.):

[https://link.springer.com/chapter/10.1007/978-3-030-23517-8\\_2](https://link.springer.com/chapter/10.1007/978-3-030-23517-8_2)





### Segurtasun klimatikoa Bengalako golkoan

Bengalako golko eskualdea da munduko klimaren aurrean arrisku gehien dutenetako bat. Haren banaketa estrategikoak, politikoak, sozialak eta ekonomikoak ere zabalak dira. Guztiek batera sortzen duten egoera arriskugarrian, segurtasun-dinamikak ahulak dira, eta tentsio sozialak eta gatazkak, berriz, bortitzak. Han gertatzen dena klima-aldaketaren eta segurtasunaren arteko harreman konplexuaren adibide argia da, biek bat egiteak planifikatzaile politikoentzat erronka berriak sor ditzakeela erakusten duena. Txosten horretan, klima-aldaketak nazioz gaindiko eta estatu-barneko gatazketan duen eragina aztertzen da, baita Bengalako Golkoko dinamika estrategiko eta militarra ere, klima-mehatxuen profilak gainjartzen baititu segurtasunean eta gatazketan oinarritutako azterketen gainera. Helburu zabalena da klima-mehatxuen, gatazken eta eskualdeko segurtasunaren arteko interakzioa hobeto ulertzea. Txostenak funtsezko sei ondorio ditu:

1. Klima-mehatxuek norgehiagoka militarra eta estatuen arteko eskualde-gatazka areagotzeko arrisku handia dago.
2. Klimak eragindako migrazioa gatazkaren eragile garrantzitsua izango da.



3. Lurren galera, mehatxu klimatikoaren ondorioz larritua, gatazkaren funtsezko faktorea izango da.
4. Klima-mehatxuek kaltetuko dute komunitate desplazatuaren erresilientzia orokorra.
5. Fenomeno meteorologiko txar ugariak mehatxu handia eragiten dute epe luzera nazioen gobernantza eta segurtasunerako.
6. Bengalako Golkoko eskualdearen aktibo estrategikoak oso ahulak dira klimaren mehatxuei aurre egiteko.

IPCS-Instituto Clingendael Institutuaren txosten berezia 212. zk  
[https://www.planetarysecurityinitiative.org/sites/default/files/2022-01/Climate\\_Security\\_in\\_the\\_Bay\\_of\\_Bengal\\_3eproef.pdf](https://www.planetarysecurityinitiative.org/sites/default/files/2022-01/Climate_Security_in_the_Bay_of_Bengal_3eproef.pdf)



### 3

## Klima-aldaketak Sahel eskualdeko migratzaileen **giza eskubideak** kaltetzen ditu

**Ikus bideo hau:** [https://youtu.be/cl4Uv9\\_7KJE?t=1874](https://youtu.be/cl4Uv9_7KJE?t=1874) (ingelesez) (31'14" minututik 36'00"-ra, edo denbora baduzu, 40'34"-ra).

**Bideo alternatiboa (gaztelaniaz):**

[https://youtu.be/\\_IGIFU5aZukhttps://www.cidob.org/es/noticias/lineas\\_de\\_investigacion\\_tematicas/cidob/el\\_sahel\\_cambio\\_climatico\\_in\\_seguridad\\_y\\_migraciones](https://youtu.be/_IGIFU5aZukhttps://www.cidob.org/es/noticias/lineas_de_investigacion_tematicas/cidob/el_sahel_cambio_climatico_in_seguridad_y_migraciones)

«Gizateriaren historian zehar, gizabanakoek, familiek eta komunitateek migrazioa erabili dute ingurumen-baldintza aldakorretara egokitzeko estrategia gisa», adierazi zuen Michelle Bacheletek, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioak, txostena aurkeztean. «Baina azkar berotzen den klimak irtenbide berriak behar ditu, migrazio hori aukera dela bermatu nahi badugu, eta ez halabeharra».

Munduko klimaren krisia aurrera joan ahala, Sahel eskualdean bizi diren pertsonak zuzenean jasaten ari dira haren ondorio okerrak, emigratu behar baitute, eta beraz, haien duintasunean eta giza eskubideetan klimaren krisiak dituen ondorioak ere ikusten ari dira.

Txostenaren arabera, eskualde hartan tenperaturak munduko batezbestekoa baino 1,5 aldiz azkarrago igotzen ari dira. Euri gutxi egiten du eta urtaro hezeak gutxitzen ari dira, baina uholdeak maiz gertatzen dira. Uztak murriztu eta bazkalekuak galdu ahala, bizirauteko baliabideak ere desagertzen ari dira. Hirietan bizi diren pertsonak ere, batez ere itsasertzeko eskualdeetan, arriskuan daude, itsas mailaren igoerarekin eta uholdeak ugaritzearekin.

Beren burua aukerarik gabe ikusita, pertsona askok alde egin behar izaten dute. Beste batzuek alde egiteko aukerarik ere ez dute, eta horrek are gehiago okertzen du egoera zaurgarria.

NBERen Giza Eskubideen atala Sahel-en kontsultatzen ari den alderdi interesdun ugarietako bat Nigeriako Adenike Oladosu klimaren eta emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea da, eta haren arabera, dagoeneko migrazioa ez da jendeak egoera aldakorretara egokitzeko erabil dezakeen estrategia erraza.



«Klima-aldaketak eragindako migrazio behartuak zuzenean eragiten dio gure bakeari eta segurtasunari» adierazi zuen.

Oladosuk nabarmendu zituen Txad lakuaren eskualdean, bereziki, lurraren erabilera eta jabetzagatik artzain nomaden eta nekazarien artean izaten ari diren liskarrak. «Horren ondorioak asko dira —adierazi zuen—, eta eragin nabarmena dute emakumeen eta neskatoen giza eskubideetan.

Emakumeen eta neskatoen ahalduntzea suntsitzen ari da. Sexu-abusua jasateko arrisku handiagoa dute, eta batzuen ustez, haurrak ezkontzea estrategia bat da, klima-aldaketak eragindako krisiari aurre egiteko. Gainera, neskatoak eta neska nerabeak eskola uzten ari dira eta haien bizibideak galtzen ari dira».

Oladosuren aburuz, ingurumen eta klima auzietan justizia egiteak ekintza klimatiko hutsa baino gehiago behar da. Neurri zehatzak hartu behar dira «justizia soziala, genero eta berdintasun arlokoa» bermatzeko, eta hori ere lantzen ari da bere aktibismoaren bidez.

Txostenean, klima-aldaketak Sahelgo giza eskubideetan dituen ondorio «ugarri, polifazetikoak eta konplexuak» aipatzen dira, hala nola bizitza, osasuna, etxebizitza, elikadura, ura eta saneamendua izateko eskubideak, bat-bateko hondamendi geldoak jasateko arriskuan baitira.

Sahel eskualdeko populazioak bizirik irauteko dituen baliabide gehienak nekazaritza, artzaintza edo arrantzari atxikiak dira, eta klima-aldaketak eragin handia du bizirauteko baliabide horietan. Adibidez, zientzialariek diote Mali-n klima-aldaketak nekazaritzako gaitasuna % 30-40 jaitea ekar dezakeela. Senegalgo kostaldean, arrain-populazioak % 80 jaitsi ziren 2017an.

Nigerian, Oladosuk dioenez, nekazaritzako ekoizpena gutxitzea «bakearen aurkako arma» bat da.

Txostenak dioenez, klima-aldaketak eragin handia du Sahelgo bizitza- eta osasun-eskubideetan. Kostaldeko itsas mailaren igoerak heriotza, lesioak, osasun fisiko txarra eta osasun mentaleko arazoak izateko arriskuak areagotzen ditu. Uholdeek eta euri gogorrek handitu egin dezakete urak edo intsektuek kutsatutako gaixotasunekiko zaurgarritasuna; urtaro lehorrek eta lehorteez, berriz, pertsonak ur osasungaitza kontsumitzeko arriskua areagotu egin dezakete.

Kasu batzuetan, pertsonak etxetik alde egitea erabakitzen dute, inpaktu horiek saihesteko. Hala ere, baliteke bide segururik, planik edo laguntza



egokirik ez izatea, eta bidaiari eta helmugara iristean arrisku handiagoei aurre egin behar izatea.

Beste pertsona batzuek bertan geratu beste erremediorik ez lukete, eta beren giza eskubideak urratuta ikusteko are arrisku handiagoa lukete.

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak egindako «Klima-aldaketak Sahel eskualdeko migratzaileen giza eskubideei nola eragiten dien» txostenaren laburpena:

<https://www.ohchr.org/es/stories/2021/11/report-how-climate-change-affects-human-rights-sahel-region-migrants>

## 4

### Afroamerikarrek eta emakume pobreek jasan zuten gehien Katrina urakanaren eragina

#### Ikus bideo hau:

<https://www.youtube.com/watch?app=desktop&v=8NSQYO2es3U> (ingelesez, azpigituluak gazteleraz) (3´10´´ arte gutxienez, baina denbora baduzue bideo osoa da benetan interesgarria).

#### Arrazismoa eta Katrina urakana

Katrina urakanak New Orleans eremua astindu zuen 2005eko abuztuaren 29an, eta AEBetako urakanik okerreza izan zen ([Knabb, Rhome eta Brown, 2006](#)). Urakanak eta haren ondorioek eragin handia izan zuten New Orleanseko populazio ahuletan, bereziki diru-sarrera txikiko afroamerikarengan. Komunitate afroamerikarrek komunitate zuriek baino kalte gehiago jasan zituzten (Logan, 2006), ([Logan, 2006](#)), eta ekaitzak kaltetutako afroamerikarrek, harrezkero, langabezia eta larritasun psikologikoko tasa handiagoak eta, oro har, bizitzan nahasmendu handiagoak izan dituzte, populazio zuriak baino ([Elliot eta Pais, 2006; White, Philpot, Wylie, eta McGowen, 2007](#)).

Antza denez, Katrina urakanak diru-sarrera gutxiko afroamerikarengan era ez-proporzionalean eragitea, hein batean bederen, urakana baino lehenagoko politiken arraza- eta klase-bidegabekeriaren arteko interakzioaren ondorio eta urakanean nahiz ondoren haren biktimei eman zitzaien tratua ondorio da. Adibidez, hiriko gobernuak ez zituen konpondu diru-sarrera gutxiko komunitate afroamerikarra inguratzen zuten dikeak, haien hauskortasunari buruz ohartarazita egon arren ([Park eta Miller, 2006](#)). Ebakuazio-politikak afroamerikarrentzat hain eskuragarri ez zeuden garraio-bide pribatuetan oinarritu ziren ([Lavelle eta Feagin, 2006](#)) (Lavelle y Feagin, 2006). Ikerketek erakutsi dute afroamerikarrek urakana baino lehen ebakuazio-plan bat izateko probabilitate gutxiago zutela, populazio zuriak baino, ([Spence, Lachlan eta Griffin, 2007](#)), eta orobat, ekaitzak iraun bitartean ebakuatzeko plana izateko ere ([Elliot eta Pais, 2006](#)).

Urakanean «akats burokratikoak» egitea ere leporatu zaio gobernuari. Izan ere, diru-sarrera txikiak zituzten afroamerikarrek are arrisku handiagoan jarri ziren, arauak hertsiki bete eta haientzat lagungarria izango zen malgutasunik batere gabe aplikatu zirelako ([Molotch, 2006](#)). Christine Stivers (2006) administrazio publikoan adituak porrot horien zenbait adibide eman ditu: adibidez, elikagaiak eta ura motel garraiatzea Louisiana Superdome



kiroldegira, hura izan baitzen «azken aukerako babeslekua» New Orleanseko (Brinkley, 2006) 25.000tik gora bizilagunentzat ([Brinkley, 2006](#)), edota enpresa txikientzako maileguak ukatzea urakanaren ondoren, eremu kaltetuetako eskatzaileei. Gobernuak urakanari emandako erantzunean arrazak eta klaseak interakzio nabarmenean jokatu bazuten ere, akademiko askoren ustez, besteak beste, Stiversen ustez, arrazakeria izan zen diru-sarrera eskaseko afroamerikarrek Katrina urakanean eta ondoren gaizki pasatzeko izan zuten arriskuaren eragile nagusia.

NCBI-ren «African American Women's Reports of Racism during Hurricane Katrina: Variation by Interviewer Race» txostenaren laburpena: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC3583345/>

### **Katrina, emakume beltzak eta Amerikako pobrezia beltzari buruzko diskurtso okerra**

Golkoko Kostako emakume afroamerikarrak dira herrialdeko pobreenetakoak. Emakumeak, oro har, zaurgarriagoak dira hondamendi naturaletan, haien zaintzen baitituzte gazteak eta zaharrak. Faktore horiengatik eta beste batzuegatik, emakume beltz pobreak izan ziren Katrina urakanaren eraginik okerrera jasan zutenetakoak. Gainera, hondamendiari eta haren ondorioei aurre egiteko oso baliabide eskasak zituzten. Hala ere, sinpatia eta laguntza eskaini beharrian, aditu kontserbadore batzuk saiatu dira Katrinak eragindako sufrimendua familia beltzetan egitura patriarkalik ez izatearekin lotzen, haien iritziz, egitura horiek lagungarriak izango zirelako, krisian bizirik irauteko. Estereotipo horiei

kontra eginez, emakume beltz asko erresilienteak eta autosufizienteak izateaz gain, sortzaileak eta heroikoak ere izan dira krisiaren aurrean. Haien istorioek itxaropena pizten dute New Orleansen eta gure nazioaren etorkizunerako.

**Iturria: «Katrina, Black women and the deadly discourse on black poverty in America»:** <https://www.cambridge.org/core/journals/dubois-review-social-science-research-on-race/article/abs/katrina-black-women-and-the-deadly-discourse-on-black-poverty-in-america/E04FE6CA7FCFFD71176607A0196AFC5D>

## 5

### Baso-suteak Australian

**Ikusi bideo hau:** Australiako baso-suteak, klima-aldaketa eta etxalde familiarra: <https://www.youtube.com/watch?v=wqNWw0SYwCI> (ingelesez)

**edo beste hau** (testigantzak) <https://www.youtube.com/watch?v=uQpSG4yQatg> (ingelesez)

Aborigenen tradizioak Australiako basoko suteei aurrea hartzeko egokia izan liteke: <https://www.youtube.com/watch?v=baWHw9rjCIE> (ingelesez)

**Bideo bat gazteleraz:** [https://www.youtube.com/watch?v=NeqLu4Hcv\\_Y](https://www.youtube.com/watch?v=NeqLu4Hcv_Y) (1'30'' arte):

Azken urteotan, behin eta berriro piztutako suteen ondorioz, baso-azalera ikaragarria soildu da planeta osoan. Brasilen, adibidez, 223.000 baso-sute izan ziren 2020an, hamarkada osoan izandako kopururik handiena. Ekosistemen eta pertsonen gainean izaten dituzten inpaktuak lazgarriak dira. Suteek, gainera, krisi klimatikoa areagotu egiten dute. Basoak erregulatzaile termikoak dira, eta karbono dioxido kantitate handia atxikitzen dute. Hori dela eta, erretzen direnean, galdu egiten dira ingurumenari ematen dioten atxikitze-zerbitzua, eta karbono kantitate handiak isurtzen dira, biomasa erretzearen ondorioz.

Sute horien arrazoiak askotarikoak dira eta tokiko testuinguruaren araberakoak. Azpimarratu behar da baso-masen kudeaketa okerra edo eskasa dela, eta lurzoruaren erabilera abeltzaintzara, laborantzara edo urbanizaziora aldatzeko suteak pizten direla nahita; horiei gehitzen zaizkie tenperatura altuak eta lehorteak. Gainera, frogatuta dago klima-aldaketaren ondorioz fenomeno horiek kalte are handiagoak eragiten dituztela eta gehiago zabaltzen direla. Hala, egungo krisi klimatikoa aintzat hartuta ulertzen da suteek gero eta ondorio arriskutsuagoak, azkarragoak eta kontrolaezinagoak eragitea, tenperaturen igoera, bero-boladak eta lehorte luzeak direla-eta, lurzorua eta landaredia lehorrak baitira. Deforestazioak eta zuhaitzak mozteko eta erretzeko jarduerak ere lehorteak eta suteak gertatzeko arriskua areagotzen dute, eta, aldi berean, desplazamenduak eragiteko arriskuak areagotzen dituzte. 2008 eta 2020 bitartean, baso-suteek 3,3 milioi desplazamendu inguru eragin zituzten mundu osoan.





### Iturria: CEAR eta Greenpeaceren «Klimatik ihes egitea» lana

<https://www.cear.es/wp-content/uploads/2021/10/informe-huir-del-clima.pdf>

### Baso-suteek era ez-proportzionalen jotzen dituzte indigena australiarrak

Lehen Nazioetako australiarrek «uda beltza» deitutakoan izandako baso-suteek eragindako kalterik okerrenak jasan zituzten, agintariek planifikazio desegokiak eta krisian esku-hartze desegokiak egin zituztelako, Australiako Unibertsitate Nazionalaren (ANU) ikerketen arabera.

Ikertzaileek txosten bat argitaratu dute, Australiako indigenek 2019-2020ko baso-suteetan izandako lehen eskuko esperientziak aztertzen dituena, eta haien aurkikuntzak Hegoaldeko Gales Berriko iparraldeko uholdeetan ere islatzen direla diote.

ANUren ikerketen arabera, Australiako indigenek arrazakeria eta tratu bidegabea jasan zituzten baso-suteen hondamendiaren aurrean, eta, gainera, etxea, lurra eta bizia galdu zituzten.

ANUko Politika Ekonomiko Aboriginaren Ikerketa Zentroaren dokumentu berriak dioenez, «[baso-suteen] krisiaren une gorenean, sorospen- eta suspertze-zerbitzu kulturalki segurtasunik gabeak eta abegi eskasekoak aipatzen zituzten istorioak sortu ziren».

Kanpoko iturrien laguntza faltaren aurrean, dokumentuak nabarmentzen du komunitate eta erakunde aboriginen beraiek lagundu eta ebakuatu

zituztela komunitateko kideak, eta lan egin zutela berehalako laguntza ematen osasun, etxebizitza, elikadura eta osasun mentalaren arloetan, eta orobat, neurriak hartu behar izan zituztela haien kultura- eta ondare-balioak babesteko. Testuinguru horretan, komunitate horiek bidegabeko tratua izan arren, biktimak izan arren, talde proaktiboak ere izan ziren, larrialdian moldatu eta erantzun zutenak, baliabiderik gabe ere. Dokumentuan adierazten den bezala, horrek frogatzen du komunitate eta erakunde aboriginen hondamendien plangintzan eta kudeaketan hobeki inplikatu behar direla. Izan ere, aitortu egin da lurra kudeatzeko aboriginen dituzten ohiturek, erreketak kontrolatuak eginez, basoetako suteen prebentzio historikoan izan duten garrantzia.



«Aborigen askok oihanetako suteen kaltea jasan zuten. Izugarritzko trauma izan zuten, bai suteagatik beragatik, bai indigenak ez ziren erakundeen eta gobernu-agentzien erantzunagatik ere», esan zuen Bhamie Williamson ANUren autore nagusi eta doktoregaiak.

Politikan hutsune handia dago herri indigenei hondamendietan laguntzeaz ari direnean, eta ez da kontuan hartzen hondamendiek herri indigenei nola eragiten dieten, besteei ez bezalako era batean.

Dokumentuak argi adierazten du herri aborigenak ez direla aintzat hartzen hondamendien plangintzan. «Hondamendien plangintzan, prestakuntza da guztia, eta ez dago aborigenen beharrian partikularrak aztertuko dituen larrialdien kudeaketa-planik», dio Williamson-ek.

«Lehen Nazioetako herriak inplikaturik zituen plangintzarik ez izateak eragin zuen “uda beltzeko” baso-suteei emandako erantzuna ezegokia, ez-eraginkorra eta okerra izatea».

Dokumentuan adierazten den bezala, ez Hondamendien aurreko erresilientzia-estrategia nazionalak (2011), ez Australiako hondamendietarako prestatzeko esparruak (2018), ez Victoria kudeatzeko 2016/2019 ekintza-planak, ez Hegoaldeko Gales Berriko larrialdiak kudeatzeko Estatuko Planak ere, ez zituzten aipatzen herri indigenak, eta larrialdi-egoeretan babesteko estrategia berezirik ere ez zuten eskaintzen.

**Iturria:** Australiako Unibertsitate Nazionalako «Bush fires disproportionately impact Indigenous Australians»: <https://www.anu.edu.au/news/all-news/bushfires-disproportionately-impact-indigenous-australians>